



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 20a

27. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Familiari Laguntzeko Foru Lege proposamena. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Foru Komunitatearen errekurso eta eskumenei buruzkoa. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren inbertsioak ezar eta egin ditzan, Reina Sofía Ospitalearen gabeziak konpontzeko, eta Erriberako osasun etxe eta anbulatorioetako analitika guztiak Reina Sofía Ospitaleko laborategian mantentzeko. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politika-modernizazioko zenbait neurri babesten ditu. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Plana aldatzea eskatzen da, eraikitze-irizpideak malgutze aldera familia bakarreko etxebizitza bakartuetarako, ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Tafallako Marqués de la Defensa ikastetxe publikoaren gabeziei buruz, eta gabezia horiek konpon ditzan. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proiektu balioaniztun eta berritzaile bat taxutu dezan, Iruñeko San Frantzisko ikastetxe publikoko patioa estaltzeko. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatzen zaio uholdeen aurrean prebentzio-politika bat abiaraz dezan, uztartuko dituen ingurumen-interesak eta Nafarroako zenbait udaletan urtero-urtero errepikatzen diren arazoaren errealitatea. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (23. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Laguntza humanitarioko eskariak direla-eta Nafarroako Gobernuak agintari kurduekin ezarritako hartu-emanei buruzkoa. Nekane Pérez Irazabal andreak egin du (25. or.).
- Galdera, hezkuntzako langile funtzionarizatuak Estatuko klase pasiboen araubideari libreki atxiki ahal izate aldera Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei buruzkoa. Nekane Pérez Irazabal andreak egin du (26. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zer urrats egin diren Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betearazte aldera; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernua premiatu zuena akordio bat lor zezan Nafarroan kokatutako finantza-entitateekin, haien jabetzako etxebizitzak etxegabetzeek ukitutako pertsoneri eta familiei alokairu sozialeko araubidean emateko. Eloy Villanueva Cruz jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aipatutako konpentsazioei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, adingabeei laguntzeko zuzendaritza batzordeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (28. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2015. urterako langileen plantilla organikoa (29. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Familiari Laguntzeko Foru Lege proposamena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Amaya Zarranz Errea andreak Familiari Laguntzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Familiari Laguntzeko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Familiari Laguntzeko Foru Lege proposamena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Historikoki, familia gure gizartearen errealitate konplexuenetako bat izan da Nafarroan eta munduan. Familiaren definizioa eta osaera aldatzen joan da, bere bilakaeraren arabera, errealitate sozio-kulturalen arabera eta ezarrita dagoen garai, erregio eta herrialdeen arabera.

Hala eta guztiz ere, halako adostasun bat dago nazioartean, familia gizartearen funtsezko elementu baten gisara eta oinarritzko batasunaren gisara babestu beharri buruz. Familiak gura garapen sozial, ekonomiko, politiko eta kulturala egituratzen du. Familiak, halaber, zeresan garrantzitsua dauka gizartearen kohesiorako ardatz eta tresna gisa, belaunaldien barneko eta belaunaldien arteko

elkartasunaren bultzatzaile gisa eta herritarren nortasuna libreki garatzeko ildo berezi gisa.

Une hauetan, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua (NFBI) da familiaren arloko politikak koordinatzearen eta kudeatzearen arloko erakunde eskuduna. Tradizionalki, gure erkidegoan, sustapen neurriak familiari laguntzeko planen bitartez gauzatu izan dira; egungo errealitatea, ordea, Nafarroan familiari buruzko lege bereki bat ez edukitzeak markatuta dago.

Lege proposamen honek araudiaren arloko huts hori bete nahi du. Sorrerako arrazoi du ziur gaudela familia gizartea eraikitzen eta hobetzen laguntzeko gaitasuna duen elementu baten gisara hartu beharra dagoela. Laguntzarako planteatzen dugun lege-esparruak ikuspegi integral bat dauka: familien babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatzen du, modu orokor eta iraunkorrean.

Joan den urtean, 2014an, Familiaren Nazioarteko Urtearen XX. Urteurrena ospatu zen, eta horrek abagune berezia ematen digu Nafarroak maila egokia duen lege-esparrua eduki dezan, familien bizi kalitatearen garapenaren arabera, aitortuz haiek eskubidea dutela behar adina baliabide eta prestazio jasotzeko, une zailtan beti izan duten babes sozialaren eginkizuna indartuz eta ahulezia-kasuetan erantzun eraginkorra emanen dela bermatuz.

Legearen egiturak 56 artikulua ditu, sei xedapen gehigarri eta bi azken xedapen. Honakoetarako neurriak jasotzen ditu: bateragarritasuna; gizarte sentsibilizazioa; enplegua; etxebizitza; hezkuntza; kultura; turismoa; arlo sozial, sanitario eta fiskala; zuzeneko laguntzak, eta parte-hartzea. Gainera, arreta berezia behar duten familien sailkapen bat ere jasotzen du. Horien artean, honakoak daude: familia ugariak, guraso bakarreko familiak, beren kargura adineko pertsonak dituzten familiak, desgaituak dauzkaten familiak, mendetasuna duten pertsonak dauzkaten familiak eta ahulezia-egoeran dauden familiak. Legearen amaieran, amatasuna babesteko neurrien berriazko atal bat badago.

**1. artikulua.** Xedea eta helburuak.

Honakoa da lege honen xedea:

1. Aitortzea familia Nafarroako gizartearen oinarritzko egitura dela, bai eta pertsonaren garapenerako esparru naturala ere.

2. Familiek beren eginkizunak betetzen dituzten esparru guztietan, haiei laguntza emateko politika integral bat diseinatu eta garatzea bideratuko duen lege-esparru bat ezartzea.

3. Haiei babesa emateko printzipioak helburuak eta hartu behar diren neurriak finkatzea.

4. Botere publikoek Nafarroako familiei laguntza emateko jarduketak ezartzeko oinarriak jartztea.

5. Amatasuna babesteko neurriak ezartzea.

**2. artikulua.** Aplikazio-eremua

1. Lege hau aplikatzekoa zaie Nafarroako Foru Komunitateko edozein udalerritan erroldatuta dauden familiei; honakoei, zehazki:

a) Ezkontza bidez edo udal baten nahiz autonomia erkidego baten bikote egonkorren erregistroan izena ematearen bidez elkarrekin lotuta dauden pertsonak, haien aurrekoak, haien menpe dauden pertsonak –filiazio bidez, adopzio bidez, tutoretza bidez nahiz harrera bidez– eta haien kargura daudenak, bizikidetasunaren gune egonkor bat osatzen duten bitartean.

b) Norbanakoak eta haien aurrekoak, haien menpe dauden pertsonak –filiazio bidez, adopzio bidez, tutoretza bidez nahiz harrera bidez– eta haien kargura daudenak, bizikidetasunaren gune egonkorra osatzen duten bitartean.

c) Haurdun dagoen emakumea eta bakarka adoptatzeko prozesuan dagoen emakumea edo gizona, adopzio aurreko familia harrera egin duen pertsona edo antzeko egoeran dagoena.

d) Familia-autoritatea gurasoez besteko pertsonengan daukaten familiak, legedi indardunear finkatutako terminoetan.

2. Lege honetatik eratorritako prestazioak eta laguntza-neurriak, halaber, bakarrik bizi diren pertsonen edo familiaz besteko bizikidetasun-taldetan bizi direnei aplikatu ahalgo zaizkie, aplikatzekoa den araudi sektorialak hori aurreikusten duenean.

**3. artikulua.** Printzipio gidariak.

a) Askatasun printzipioa.

Familia-bizitza eta bizikidetasuna antolatzeko askatasuna aitortuko da beti, familia osatzen duten pertsonen duintasunaren eta funtsezko eskubide-

en errespetua oinarri, Nafarroako foru zuzenbide zibilarekin edo aplikatzekoa den araubide juridikorekin bat.

Familiek beren familia-proiektua gauzatu ahalgo dutela bermatuko da, eta, horretarako, beharrezkoak diren baliabideak emanen zaizkie eta ezabatuko egingen dira bide hori ekidin, mugatu edo oztopatzen dituzten traba guztiak.

b) Berdintasun printzipioa.

Aitortu eta errespetatu egingen da gizonezkoek eta emakumezkoek duintasun, eskubide eta familia-bizitzaren arloko ardura berak dituztela.

c) Ardura publikoaren printzipioa.

Babes integrala bermatuko zaie familiari eta ordenamendu juridikoak aitortutako bizikidetasun-forma ororen eskubideei. Berariazko arreta emanen zaie lege honetan arreta bereziki zatitako familiei.

d) Zeharkakotasun printzipioa.

Administrazio publiko nafarrek familiaren babesarako gauzatzen dituzten babes politikek familiaren bizitza eta jarduera gauzatzen diren esparru guztiak hartuko dituzte.

e) Parte-hartzearen printzipioa.

Sustatuko da familiek parte har dezaten beraingan eragina duten politiken diseinuan eta gauzatzean, familia-elkarteen eta familien ordezkaritza duten bestelako erakunde batzuen bidez.

f) Kooperazio printzipioa.

Bilatuko da ahaleginak eta baliabideak integratzea familia-politiken diseinuan eta garapenean, betiere lankidetzat publikoa eta pribatua sustatuz.

g) Hurbiltasun printzipioa.

Herritarrak familiari arreta eta laguntza emateko baliabideak ahal den eta eskurago eta hurbilago edukitzea bilatuko da, Nafarroan dagoen eskualde- eta lurralde-antolamendua kontuan hartuta.

h) Jarraitasun printzipioa.

Foru erkidegoko botere publikoek familia-politiken jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatuko dute, eta bilatuko dute haien diseinua eta garapena lor daitekeen adostasun politiko eta sozial zabalenarekin gauzatu daitezen.

i) Orokortasun printzipioa.

Familiei laguntza emateko politiken oinarritzko xedea izanen da Nafarroako familia guztiak babes-

tea; hori, halere, ez da eragozpena izanen beharri-  
zan edo egoera jakin batzuei konponbidea emate-  
ko jarduketak egiteko, arreta berezia behar duten  
familiek laguntza berariazkoagoa behar badute.

#### **4. artikulua.** Xedeak.

Honakoak dira Nafarroan familiari laguntzeko  
politika publikoen helburuak:

a) Familia aitortzea oinarrizko gizarte batasun  
gisa, eragile integratzaile, hezitzaile eta egonkor-  
tzaile gisa, eta gizarte kohesiorako tresna gisa, eta  
haren aitorten soziala sustatzea.

b) Behar diren baldintzak sortzea familiaren  
garapena ahalbidetzeko.

c) Familiari arreta emateko politika koordinatu  
eta integral bat bermatzea Nafarroako Gobernuak  
kudeatzen dituen jarduketetan, haren bizi kalitatea  
hobetzeko eta oinarrizko beharriazko estaldura  
emateko.

d) Norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-  
arloko bizitza bateragarri egin daitezela sustatzea;  
horretarako, erraztu eginen dira bai norbanako-  
aren garapena, bai haren familia-inguruarena ere.

e) Jarduketa batzuk ezartzea, lege honetan  
arreta bereziki definitutako familien parte-har-  
tzearen eta aukeren berdintasuna bultzatzea ahal-  
bidetuko dutenak.

f) Belaunaldien arteko eta belaunaldi barruko  
elkartasuna sustatzea.

g) Behar diren baldintzak sortzea aitasuna  
eta amatasuna positiboki gauza daitezela susta-  
tzeko.

### **I. TITULUA**

#### **Familiak babesteko, artatzeko eta laguntzeko neurriak.**

### **I. KAPITULUA**

#### **Norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arlo- ko bizitza bateragarri egiteko neurriak**

##### **5. artikulua.** Printzipioak.

1. Foru erkidegoko administrazio publikoek nor-  
beraren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizi-  
tza bateragarri egitea bideratuko duten neurriak  
ezarri eta bultzatuko dituzte, bai arlo publikoan, bai  
arlo pribatuan ere, emakumeentzat eta gizonen-  
tzat aukera berak bermatuz, dauzkaten familia-  
erantzukizunak behar bezala artatu ahal ditzaten,  
lanbidean aurrera egin dezaten eta bizitzaren  
esparru guztietan beren burua garatu ahal deza-  
ten.

2. Giza baliabideak kudeatzeko oinarrizko tres-  
na bezala bateragarritasunak daukan garrantziari  
buruzko sentsibilizazioa sustatuko da, lanaren,  
famiaren eta norbanakoaren esparruetan dauz-  
kan onurak nabarmenduz.

3. Nafarroako Gobernuak sustatuko du admi-  
nistrazio publikoetan bateragarritasun-neurriak  
aplika daitezela. Horri begira, administrazio publi-  
koen artean behar diren lankidetzak-hitzarmenak  
egin ahalko dira neurri horien ezarpenari begira.

#### **Lehenengo atala Administrazio-jarduketa**

##### **6. artikulua.** Sentsibilizazioa.

1. Nafarroako Gobernuak sentsibilizazio kan-  
painak eginen ditu, gizarte kontzientziatze aldera  
norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko  
bizitza bateragarri egiteak dauzkan onurei buruz.

2. Sustatu eginen da komunikabide guztiek  
eginkizun aktiboa izan dezatela edozein bazterke-  
ria mota deuseztatzearen arloan eta eran-  
tzunkidetasuna eta genero-berdintasuna gizarte  
balio gisa bultzatzearen arloan.

##### **7. artikulua.** Kontratazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko sektore publi-  
koaren esparruan, baldintza administratibo parti-  
kularren orriek lehentasuna adierazi ahalko dute  
kontratuak beren langileentzako bateragarritasun-  
neurri iraunkorrak ezartzen dituzten enpresa  
publiko nahiz pribatuek aurkeztutako proposamen-  
en alde esleitzeko, baldin eta proposamen  
horiek, beren terminoetan, aldekoena den eskaini-  
tza berdintzen baldin badute esleipenerako oinarri  
diren irizpideen ikuspuntutik, arau indardunetan  
ezarritakoari jarraituta.

##### **8. artikulua.** Diru-laguntzak.

Nafarroako Gobernuak laguntza batzuk susta-  
tuko ditu norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-  
arloko bizitza bateragarri egitea bideratzen duten  
jarduketa eta programen garapena beren gain har-  
ten duten administrazio publikoentzat eta irabazi  
asmorik gabeko entitateentzat, baldin eta jarduke-  
ta eta programa horien azken hartzaileak familiak  
badira, bereziki beren egoera ekonomikoa dela-  
eta premia handia duten familiak.

#### **Bigarren atala Hezkuntza**

##### **9. artikulua.** Hezkuntzaren arloko jarduketak.

Nafarroako Gobernuak, hezkuntzaren arloan,  
Nafarroako familietan norberaren bizitza, familia-

bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea bideratuko duten jarduketak sustatuko ditu; horretarako, foru erkidegoaren lurralde-errealitatea hartuko du kontuan. Hona jarduketa horiek:

a) Bultzatuko da baliabide eta zerbitzu batzuk egon daitezen familia-erantzukizunak eta adingabeen zainketa- eta arreta-lanak betetzen laguntzeko, bereziki hezkuntza premia bereziak daude-nean.

b) Bideratuko da gurasoen ikastetxea hautatzerakoan lehentasunezko irizpide gisa familiaren bizitokia ez ezik, lanaren kokalekua ere sar dadin.

c) Laneko ordutegiak eta eskolakoak bateragarriak izan daitezen sustatuko da.

d) Zerbitzuen eskaintza sustatuko da, ikaste-txeak irakaskuntzakoak ez diren aldietan irekiz, eta haien ordutegia luzatuz eskola-aldiaz kanpo.

e) Eskola-bizitza eta lan-bizitza harmonizatzea erraztuko da, familiaren eta eskolaren arteko lankidetzak eta kooperazio-esparruen bitartez; horretarako, hezkuntza-espazioan parte hartzeko eta erantzunkidetasuna izateko aukerak erraztuko dira.

f) Hezkuntza-instalazioak bateragarritasunerako baliabide gisa erabil daitezen sustatuko da.

### Hirugarren atala Enplegua

#### 10. artikulua. Sektore pribatua.

1. Nafarroako Gobernuak, eragile ekonomiko eta sozial garrantzitsuekin lankidetzan, sustatuko du foru erkidegoaren esparruan jarduketak egiten dituzten enpresek neurriak har ditzaten langileen bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko, Nafarroaren lurralde-errealitatea kontuan hartuta. Horretarako:

a) Sustatuko da negoziazio kolektiboan gisa honetako neurriak har daitezen.

b) Familia-erantzukizuna enpresen erantzukizun sozialaren inguruko irizpide nagusi baten gisara hartuko da.

c) Nafarroan dauden hitzarmen kolektiboen azterketa bat eginen da –hitzarmen horiek neurriak jasoko dituzte norberaren bizitzaren, familia-bizitzaren eta lan-arloko bizitzaren bateragarritasuna hobetzeko, eta langileen arteko berdintasun efektiboa ezartzeko–, eta erakundearen konpromiso-maila neurtuko da.

d) Enpresetan berdintasun-planak egitea eta aplikatzea bultzatuko da; plan horietan, beste xede batzuen artean, norberaren bizitza, familia-bizitza

eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak jasoko dira.

e) Egoki diren neurriak hartuko dira Nafarroako enpresetan ordutegi arrazional eta malguak aplikatzen daitezeko; horrela bai produktibotasuna, bai lan-giroarekiko asetasuna eta optimizazioa hobetuko dira.

f) Neurriak hartuko dira pizgarriak emateko beren langileei lan-arloko bizitzaren, familia-bizitzaren eta norberaren bizitzaren bateragarritasuna errazteko bideratutako zerbitzuak ematen dizkieten enpresei.

g) Enpresentzako diru-laguntzetan, barematzerako irizpide gisa, sustatuko da erantzukizun soziala sustatzen duten neurriak hartzea, langileek bateragarritasuna errazago lor dezaten.

h) Enpresariak eta langileak bateragarritasun neurrien ezarpena bideratutako jokabide egoikiak garatzeko foroan antolaketa bultzatuko da.

Halaber, enpresariei eta langileei zuzendutako sensibilizazio kanpainak bultzatuko dira, familien eta enpresen arteko topagune gisa balioko dutenak.

i) Nafarroako Gobernuak bultzatuko du, inplikaturako sektoreekin batera lan eginez, aintzatespena eman dakiela modu egonkor eta jarraituan familientzako bateragarritasun- eta laguntza-neurriak ezartzen dituzten enpresei.

2. Enplegurako laguntza ematearen arloan, bateragarritasunerako laguntzak bultzatuko dira, sei urtetik beherako seme-alabak edo mendeko senideak dauzkaten langabetuentzat, kasuko arau erregulatuaz ezarritako irizpide eta baldintzei jarraituz.

#### 11. artikulua. Sektore publikoa.

1. Nafarroako Gobernuak foru erkidegoko administrazio osoan aplikatzeko tresna bat landuko du, berdintasun- eta bateragarritasun-printzipioen gauzatze efektiboa bermatuko duena. Horretarako:

a) Langileei ordutegi arrazionalak aplikatzen dituzten bultzatuko du, bai eta ordutegia malgutzeko neurriak ere, ordutegi hori familia-erantzukizunekin bateragarri gertatzen laguntzeko, hori zerbitzua egoki ematearekin uztartzen den bitartean.

b) Lan denbora efektiboak zenbatzeko sistema zabalago eta malguagoak ezartzea sustatuko da, halako moduz non aukera emanen baita ordutegiak egokitzeko, araudi indardunak bideratzen dituen tarteen barruan, bai unitatean dagoen lan-bolumenaren arabera, bai norberaren bizitza eta

familia-bizitza bateragarri egiteko beharrezan araberaren ere.

c) Administrazioaren zerbitzuko langileei egoki dakizkiekeen baimen eta lizentziak arautuko ditu, berdintasun- eta bateragarritasun-irizpide orokorrak kontuan hartuta.

d) Uda garaiko edo jai egunetako ordutegi murrizketak eta ordutegi berezien zehaztapena, ahal den neurrian, ikastetxeetako ordutegi murrizketen araberaren egokituko dira.

2. Jarduketan horiek guztiak Nafarroako Foru Komunitatearen funtzio publikoari buruzko legegindian jasoko dira.

### **12. artikulua.** Telelana.

1. Nafarroako Gobernuak bere zerbitzura dauden langileentzat sustatuko du, lanpostuaren ezaugarriek horretarako bidea ematen duten kasuetan, aukera izan dezaten bertaratzea eskatzen ez duten modalitateen bitartez lan egiteko, neurri hori aurreikusitako lan helburuak erdiestearekin uztartzeko modukoa den bitartean.

2. Halaber, neurri egokiak hartuko dira sektore pribatuan telelana sustatzeko, beren produkzio-edo antolaketa-sistemarengatik lanaldi osoa edo haren zati bat lan-inguruneaz kanpo egitea bideratzen duten enpresa eta entitateen kasuan.

### **Laugarren atala Gizarte zerbitzuak**

#### **13. artikulua.** Gizarte zerbitzuak.

Nafarroako Gobernuak abian jarriko ditu, gizarte zerbitzuen arloan, Nafarroako familietan norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egitea erraztera bideratutako jarduketak, kontuan hartuta aplikatzekoa den araudi sektoriala eta erkidegoaren lurralde-errealitatea. Horri dagokionez, honakoak jasoko dira:

a) Seme-alaba adingabeak, adineko pertsonak eta desgaitasuna nahiz mendetasuna duten pertsonak dauzkaten familietan bateragarritasuna erraztuko duten gizarte izaerako zerbitzuen garapena, kontuan hartuta lege honetan arreta berezikotzat jotzen diren familien beharrezan.

Hartara, bilatuko da, besteak beste, eguneko eta egoitza-izaerako zentroen, eguneko egonaldien programen, familiek atsedean hartzeko programen eta etxetik etxeko laguntza-zerbitzuen sare bat ezar dadila, titularitate publikokoak nahiz pribatuak, pertsonen eta familien beharrezan araberakoak.

b) Adingabeen arreta- eta zainketa-jarduerak garatzeko oinarriko baldintzen araupetzea, berrizazio zero eta hiru urte bitarteko adingabeen zuzendutakoak.

c) Belaunaldien arteko aisialdi partekatutako jarduerak garatzea.

d) Elkarrekiko laguntza- eta elkartasun-zerbitzuak eta ekimenak abian jartzea erraztuko duten neurriak.

e) Aukeren berdintasunaren arloko sensibilizazio-jarduketak ezartzea.

## **II. KAPITULUA**

### **Familiari laguntzeko neurriak**

#### **Lehenengo atala Neurri materialak**

**14. artikulua.** Etxebizitzaren arloko neurriak. Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren erosketara, alokairua, zaharberritzea eta sustapena bultzatuko ditu, etxebizitzaren kudeaketa soziala antolatzea bideratutako berariazko plan baten esparruan, ezartzen diren betekizun eta baldintzen araberaren. Helburu hori lortzeko, honako neurri hauek garatuko dira, besteak beste:

a) Familien eta haien kideen beharrezan eta inguruabarrei egokitzen zaizkien programak bultzatu eta sustatuko dira, etxebizitza eskuratzekoak.

b) Lehentasunez baloratuko dira lege honetan arreta berezikotzat sailkatutako familiak; horretarako, etxebizitzari buruzko kasuko araudia aldatuko da.

#### **15. artikulua.** Enpleguaren arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak neurriak hartuko ditu arreta berezikotzat definitutako familiek errazago lor dezaten lana, indarrean dagoen legegindian ezarritakoarekin bat eta deialdi bakoitzean definitutako oinarri jarraikiz.

2. Enplegua sustatzearekin zerikusia duten laguntzen eta diru-laguntzen deialdietan, kontuan hartuko da kontratatatu behar den pertsonaren egoera soziofamiliarra.

3. Lanik gabe dauden pertsonen orientazio eta prestakuntza programetan, lehentasuna emanen zaie arreta berezikotzat jotako familia-unitateko pertsonari, eta, behar izanez gero, prestakuntza ekintza horietan parte hartzen dutenen inguruabar pertsonaletara egokitutako beka eta laguntzak emanen dira.

4. Landa-inguruetakako familientzat nahiz arreta berezikotzat jotakoentzat enplegua sortzeko bidea emanen duten egitura enpresarialak sustatuko dira.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak, laguntza-ildoen bidez eta behar den aholkularitza teknikoaren bidez, autoenplegua helburu duten eta lanpostuak sortzea ekarriko duten ekintza guztiak erraztuko ditu.

5. Nafarroako Gobernuak laguntzak ezarriko ditu, inguruabar soziofamiliarren kontuan hartuta, tokiko ekimenak abian jar daitezzen bultzatzeko, enpresak eta enpresa familiarren sorrera emaitza izanen dituztenak, bai eta azken horien belaunaldi-erreleboa ere.

6. Autonomia pertsonala eta familiarra lortzera bideratutako proiektu teknikoak gauzatzeko dituzten enpresak bultzatuko dira familia eta lanaren batezgarritasuna edo gizarte ardura susta ditzaten.

7. Behar diren neurriak hartuko dira gizarteratze-proiektuak dauzkaten enpresak indartzeko. Halaber, programa integralak sustatuko dira, haien bidez errazteko bazterketa-arriskuan dauden pertsonen edo lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dauzkatenen laneratzea.

8. Lurraldean, tokiko nahiz eskualdeko egituren bitartez, profesionalei eta familia-enpresei zuzendutako prestakuntza ekintzak sustatuko dira, haien enplegarritasuna hobetzeko.

#### **16. artikulua.** Hezkuntzaren arloko neurriak.

1. Administrazio publikoak bultzatuko du onura fiskal emateko neurriak har daitezzen, eta familiei, beren diru-sarreraren eta familia-unitateko kideen kopuruaren arabera, laguntzak emanen dizkie eskola-jantokirako eta curriculum-materialerako, bereziki kontuan hartuz arreta berezikotzat sailkatuta dauden familia-unitateak.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako termino berdinetan, administrazio eskudunek eskola-garraioaren aroko laguntzak sustatuko dituzte.

3. Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du gaikuntza eta prestakuntza jarraituko ikasketak egin daitezzen, bai eta hizkuntzen ikaskuntza ere, eta erraztasunak emanen dizkie arreta berezikotzat jotako familietako kideei.

4. Berdintasunarekin, erantzunkidetasunarekin, emozioen heziketarekin eta, bereziki, familien aniztasunarekin lotutako balioetan hezteko curriculum-esparruaren, material didaktikoaren eta ikastetxeko hezkuntza proiektuaren zeharkako atal bat izanen da. Horretarako, irakasleen prestakun-

tzarako planak jarriko dira abian, familia-aniztasunari buruzko kontzientzia hartzea errazte aldera.

5. Nafarroako Gobernuak hezkuntza barnehartzailea bermatuko du, ikaskuntza-beharrizanak aseko dituen eta ikasle bakoitzaren ahalbideen garapena erraztuko duena, familien egoera desberdinak kontuan hartuta.

6. Familiaren eta ikastetxeren arteko lankidetzeta eta koordinazioa sustatuko dira, familia-eskolen bitartez. Familia-eskolak hezkuntza erkidego osoak osatuko ditu, gurasoen elkartearen parte-hartzearekin, eta topaketarako, eztabaidarako eta prestakuntzarako guneak izanen dira.

7. Orientazio- eta tutoretza-eginkizuna sustatuko dira, bai eta ikastaro berezituak ere, haien bitartez koordinazioa eta gurasoak seme-alaben garapen integralean inplikaturik egon daitezzen bideratzeko.

**17. artikulua.** Kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren arloko neurriak.

1. Administrazio publikoek erraztasunak emanen dituzte familiak kirolerako, kulturarako eta aisiarako instalazioetara sartu eta haiek erabili eta goza ditzaten, eta baldintza bereziak emanen dizkiete lege honetan arreta berezikotzat sailkatzen diren familiei.

2. Horrelako jarduerak egitea familia-loturak indartzeko modu gisa sustatuko da.

3. Aisiako jarduerak bultzatuko dira, bereziki eskola-oporraldietan, norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea errazteko, familien beharrizanen arabera eta familia-unitateko kideen garapen pertsonalaren arabera.

**18. artikulua.** Gizarte zerbitzuen arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak egoki diren neurriak hartuko ditu familien beharrizanak bereziki bermatzeko, jarduketara sozial eta sanitarioak garatuz.

2. Gizarte zerbitzuen arloan, Foru Administrazioak laguntza-neurri batzuk diseinatuko ditu honakoak bideratzeko: familia-dinamika positiboa, arazoaren konponbidea eta erabakiak hartzea. Gainera, neurri horien bidez, familia-baliabideak indartu eta garatuko ditu.

3. Jarduketa orotan, adingabearen interes gorena bermatuko da, hura babesteko neurri egokiak hartuz. Neurri horiek, nagusiki, adingabearen familia-ingurunean aplikatuko dira, edo, ezinbestean, Nafarroako Gobernuaren menpeko zerbitzu espezializatuen bitartez.



4. Berariazko beharrianak dauzkaten pertsonak artatzeko zerbitzu eta azpiegitura egokiak egon daitezen sustatuko da, familia-etxebizitzan nahiz hartatik kanpo, araudi indardunaren arabera.

**19. artikulua.** Osasun zerbitzuen arloko neurriak.

Osasun arloan, familiaren esparrutik, prebentziorako eta ohitura osasungarriak sustatzeko politikak bultzatuko dira; horretarako:

a) Behar diren neurriak hartuko dira familia-inguruneke gaixoen zaintzaileek informazio eta prestakuntza egokia dutela bermatzeko, bereziki haurren gaixotasunen kasuan. Halaber, osasunaren arloko informazioa eta arreta zailtasunak edo desgaitasunak dituzten familien arabera egokituko dira. Era berean, kontuan hartu beharko dira familian eragin berezia duten osasun-egoeretatik sortzen diren beharrian bereziak.

b) Familiako kideetako bat beste toki batera arreta anbulatorioa nahiz ospitalekoa hartzera joaten den kasuetan, familia horiei sostengu-sistema bat ematea sustatuko da; halaber, gure foru erkidegoaz kanpo hartu beharreko tratamenduetatik heldu diren gastuak ordaintzeko sistema bat sustatuko da.

**20. artikulua.** Lankidetzaren sozio-sanitarioa.

1. Nafarroako Gobernuak gizarte zerbitzuen nahiz osasun zerbitzuen eta horiekin lotutako beste administrazio-zerbitzuen arteko lankidetzaren eta koordinazio sozio-sanitarioa sustatuko ditu, bereziki hezkuntzaren arloan.

2. Foru erkidegoko Administrazioak begiratu du Nafarroako familiei bideratutako gizarte zerbitzuak eta osasun zerbitzuak garatzen eta egoki garatzen direla, eta horretarako haiei buruzko kalitate plan bat onetsiko du, haien eskubideak bermatzeko dituen; plan horrek, zerbitzu-gutunak jasoko ditu, erabiltzaileei eta haien familiei arreta eta orientabidea emateko sistema zehatzekin, eta kexa- nahiz iradokizun-prozeduretarako eta eskerak emateko prozedurarako sarbidea emanen du, betiere herritarren parte-hartzea sustatuz.

**21. artikulua.** Teknologia berrien arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak informazioaren teknologia berrietan ikastaroak ematea bultzatuko duten neurriak hartuko ditu; ikastaroak familia-erabilera erraztera bideratuko dira, gurasoek kontrol egokia izan dezaten adingabeek haiez egiten duten erabilera, eta hezkuntza- eta komunikazio-baliabide gisa erabil daitezten.

2. Halaber, Nafarroako administrazio publikoek lankidetzaren publiko-pribatua sustatuko dute, adineko pertsonen teknologia berrien arloko prestakuntza har dezaten, zahartze aktibora orientatua.

3. Sustatuko da familiek ekipamendu eta teknologia informatikorako sarbidea izan dezaten, bai eta lurralde guztian datuen transmisio elektrikorako zerbitzuetarako ere.

4. Nafarroako Gobernuak familietan esku-hartze sozial eta hezkuntzako egiteko programak sustatuko ditu, teknologia berriak osasunaren sustapenaren ikuspegitik lantzeko.

**22. artikulua.** Kontsumoaren arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak bermatzeko du familiek kontsumoaren arloko hezkuntzarako eta prestakuntzarako sarbidea dutela, ondasunen kontsumoan eta zerbitzuen erabilera libre, arrazional eta erantzukizuneko gara dezaten.

2. Sustatuko da familia-kontsumoari buruzko jardunaldiak eta berariazko programak egin daitezten, eskubideak eta haiez baliatzeko eta haiek erabiltzeko bideak ezagutzera emateko.

Lehen. Kontsumoaren arloko informazio bide orokorren birtartez, neurri egokiak hartuko dira bermatzeko familien eskura jartzen diren produktu, ondasun eta zerbitzuek informazioarako eta publikizitate objektibo, egiazko, eraginkor eta nahikorako sarbide zuzena bideratzen dutela.

Bigarrena. Botere publikoek bereziki begiratu, kontrolatu eta zainduko dituzten produktu, ondasun eta zerbitzuak izanen dira familientzat oinarriko premia diren funtsezko zerbitzu eta ondasunak.

Hirugarrena. Botere publikoek lehentasunezko arreta eskainiko diete bereziki babestekoak diren kontsumitzaileen kolektiboetatotzat jotzen diren familiei.

**23. artikulua.** Turismoaren arloko neurriak.

Nafarroako Gobernuak familia-turismoaren garapena sustatuko du foru erkidegoaren esparruan, turismo-azpiegiturak hobetzera bideratutako laguntzen bitartez, bai eta turismoa sustatzeko jarduketaren bitartez ere.

### **Bigarren atala Zerga arloko neurriak**

**24. artikulua.** Printzipio orokorrak.

Nafarroako Gobernuak familiak babesteko zerga-neurriak ezarri eta sustatuko ditu bere esku-menaren esparruan, eta koordinazio egokia bilatuko

du haien eta erkidegoak familia babesteko abian jartzen dituen politika sektorialen artean.

**25. artikulua.** Zerga-onurak.

1. Nafarroako Gobernuak bultzatuko du onura fiskalak ezar daitezela Nafarroako familientzat –berariaz, arreta berezikotzat jotzen diren familientzat– pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta oinordetzei eta dohaintzei buruzko zergan.

2. Onura fiskalek lehentasunezko helburu sozio-ekonomiko gisa izanen dute ohiko etxebizitzarako sarbidea izatea, jaiotzaren babesa eta sustapena, familia-bizitzaren eta lan-arloko bizitzaren bateragarritasuna eta enpresa-familien sorrera eta mantentzea, besteak beste.

**26. artikulua.** Tasa eta prezio publikoak.

Nafarroako Gobernuak sustatuko du, bere eskumenekoak izan eta izaera kultural, hezkuntzako, sozial edo sanitarioa zamatzen dituzten tasa eta prezio publikoetan, salbuespenak eta hobariak sar daitezzen haiek ordaindu behar dituztenentzat, arreta berezikotzat jotzen diren familietakoak baldin badira.

**Hirugarren atala**  
**Prestazio ekonomikoak**

**27. artikulua.** Familia integraziorako laguntzak.

Nafarroako Gobernuak familia-integraziorako laguntzak sustatuko ditu, aldizkakoak zein emergentzia puntualekoak, beren kargura adingabeak dituzten familia-unitateei eusten zaiela zaintzeko; horren bidez, saihestuko da haiek egoitzazentroetan sartzea edo adingabeak familia-gunetik bereiztea dakarten babes neurriak hartzea.

**28. artikulua.** Premiazko laguntzak.

Nafarroako administrazio publikoek bermatuko dute premiazko laguntza batzuk badaudela, ezinbestekoenak diren bizi-baliabideak galdu dituzten familiek dauzkaten premia-egoerak ebaztera bideratuak.

**29. artikulua.** Familia ugarientzako laguntzak.

Nafarroako Gobernuak, urtero, familia ugariei zuzendutako zuzeneko edo zeharkako laguntzen deialdia bermatuko du.

**30. artikulua.** Erditzaerako edo adopzio anizkoi-tzaerako laguntzak.

Foru Administrazioak bermatuko du urtero laguntzetaerako deialdia egiten dela erditze anizkoi-tzetan jaiotako edo adopzio anizkoi-tzetik heldutako

seme-alabak dituzten familiei laguntzeko, sortzen zaizkien aparteko gastuetan laguntzeko asmoz.

**31. artikulua.** Adopzio-aurreko familia-harrera-rengatiko ordainak.

Babespean dauden adingabeak hartzen dituzten familientzat, kasua bada, konpentsazio batzuk ezarriko dira. Haien zenbatekoa hartutako adingabeen kopuruaren arabera finkatuko da, kasuan kasu, bai eta adingabe horien berariazko premien edo osasun- nahiz hezkuntza-arreta berezitik heldutako gastuen arabera ere.

**32. artikulua.** Bestelako prestazioak.

Aurreko artikuluetan jasotako laguntza ekonomikoak ezertan kendu gabe, Nafarroako Gobernuak beste prestazio ekonomiko batzuk ezarri ahalgo ditu familia-beharrizan edo -egoerak artatzeko.

**III. KAPITULUA**  
**Neurri administratiboak.**  
**Parte-hartzea eta sentsibilizazioa**

**Lehenengo atala**  
**Neurri administratiboak**

**33. artikulua.** Familia-ikuspegia.

Erkidegoko administrazio publikoek beren erabaki eta jarduketa sektorialetan familia-ikuspegia sartuko dute, kontuan hartuta politika sozial eta ekonomikoek familietan duten eragina, betiere azken xede dutela haien bizi-baldintzak hobetzea.

**34. artikulua.** Arauen prestaketa eta horiek familietan izanen duten eraginari buruzko azterlanak.

1. Familietan edo haien multzo aipagarri batean eragin nabarmena izan dezaketen izaera sektorialeko arauak prestatzeko espedientearen dokumentazioan, berariazko erreferentzia bat jasoko da lantzen ari den araudiak familian izanen duen eraginari buruz.

2. Lege honetan aurreikusitako familia-eskubi-deetan eragin berezia duten xedapen orokorrak izapidetzeko garaian, entzunaldia emanen zaie ordezkagarritasuna duten entitate eta elkarteei, parte har dezaten.

**35. artikulua.** Argibideak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, familiaren arloko organo eskudunaren bitartez, baliabideen gida bat landuko du Nafarroak familientzat. Gida hori urtero jarriko da egunean eta informazio xehakaturia eta osoa emanen du

Nafarroako Gobernuak familiei eskaintzen dizkien zerbitzuei buruz.

**36. artikulua.** Departamentuarteko Batzordea.

Familia-politikaren arloan, foru lege honen printzipio eta helburuen betetzea eta familiaren babes integrala bermatzeko, xedatzen da Familiaren Departamentuarteko Batzordea izanen dela parte-hartzerako organoa. Haren eginkizunak eta osaera hurrengo artikuluetan arautu dira.

**37. artikulua.** Familiaren Departamentuarteko Batzordearen eginkizunak.

Familiaren Departamentuarteko Batzordeak honako eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Nafarroako Gobernuak familiari buruzko politikaren arloan dauzkan helburuetan sakontzea.
- b) Familiengan eragin zuzena duten zuzendaritza-organoen ekimenak aztertzea.
- c) Ekintza-ildo batzuk proposatzea, familiei laguntzek politikak garatzea bermatuko dutenak.
- d) Familiekin lotutako neurriei buruz aholkua ematea.
- e) Familia-unitateentzako baliabideak biltzen dituzten araugintza-proiektuak ezagutzea.
- f) Eduki ekonomiko eta soziala duten ikerketa-eta analisi-lanak sustatzea, Nafarroako familietarako zerbitzuen ezarpenerako lan-diagnosi gisa balia daitezkeenak.
- g) Lege honetan aurreikusitako neurrien betetzea ebaluatzea.
- h) Nafarroako Gobernuak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak.

**38. artikulua.** Familiaren Departamentuarteko Batzordearen osaera.

Batzordeburua eta batzordeburuordea departamentuko titularra eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko –familiararen arloko entitate eskuduna– titularra izanen dira, hurrenez hurren. Batzordeko kideak Nafarroako Gobernu departamentu bakoitzeko titularrak izendatutako ordezkaria. Familiaren arloko departamentu eskuduneko funtzionario bat izanen da idazkaria, ahotsarekin baina botorik gabe, departamentu horretako titularrak izendatua.

**39. artikulua.** Aldizkakotasuna.

Familiaren Departamentuarteko Batzordea sei hilabetez behin bilduko da, batzordeburuak deialdia egin ondoren, eta haren antolamendu- eta funtzionamendu-arauak erregelamenduz ezarriko dira.

**40. artikulua.** Familien elkartegintza.

1. Nafarroako Gobernuak familiararen arloko elkartegintza bultzatuko du familiararen interesak ordezkatzeko bide gisa, eta komunikazio arin eta eraginkorra ahalbidetuko duten koordinazio bideak ezarriko ditu.

2. Halaber, lankidetzeta-bide egokiak ezarriko dira, familientzat interesekoak diren programak garatzeari begira, eta elkarte horiek betetzen duten eginkizunari buruzko ezagupena eta sensibilizazioa erraztuko dira.

3. Familiaren arlok baloreen defentsaren, babesaren eta sustapenaren arloan berariazko jarduketak egiten dituzten elkarte eta entitateak aintzatesteko neurriak ezarriko dira.

#### IV. KAPITULUA

##### Arreta berezikotzat jotzen diren familiak

**41. artikulua.** Kontzeptua.

1. Lege honen eraginetarako, arreta berezikotzat jotako familiak dira Nafarroako Gobernuak diseinatutako programa eta jarduketetan lehentasunezko arreta edo/eta berariazko arreta eduki behar dutenak, haien egoera soziofamiliarretik heldutako banakako neurriak hartzea eskatzen dutelako.

2. Nafarroako administrazio publikoek berariazko politika bat garatuko dute familia-unitate horien beharrezanetan laguntzeko.

**42. artikulua.** Arreta berezikotzat jotzen diren familia multzoak.

Honakoak izanen dira arreta berezikotzat sailkatutako familiak:

- a) Familia ugariak.
- b) Guraso bakarreko familiak.
- c) Beren kargura adineko pertsonak dauzkaten familiak.
- d) Desgaitasuna duten pertsonak dauzkaten familiak.
- e) Beren kargura mendetasuna duten pertsonak dauzkaten familiak.
- f) Ahulezia-egoeran dauden familiak.

**43. artikulua.** Familia ugariak.

Familia ugaritzat hartuko dira familia ugariak babesteko araudi indarduneari ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

**44. artikulua.** Guraso bakarreko familiak.

Lege honen eraginetarako, ulertuko da guraso bakarreko familia dela honakoek osatutako familia-gunea: batetik, guraso bakarra, guraso bakar hori ez denean bizitzen ez ezkontidearekin, ez ezkontza bidezkoarenaren antzeko harremana duen beste inongo pertsonarekin ere, eta, bestetik, haren kargurako seme-alabak, baldin eta guraso bakarra bada familiari sostengua ematen dion bakarra.

**45. artikulua.** Beren kargura adineko pertsonak dauzkaten familiak.

Foru lege honen eraginetarako, honakoa hartuko da bere kargura adineko pertsonak dauzkan familiatzat: familia bat non bizi baita aurreko ahaide bat edo zuzeneko lerroz nahiz 2. gradura arteko odol-ahaidetasunez ahaidea den pertsona bat, 65 urtetik gorakoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko legedian aurreko ahaide-enganatiko gutxienekoa aplikatzeko finkatzen den kopurutik gorako urteko errentarik ez duena.

**46. artikulua.** Desgaitasuna duten pertsonak dauzkaten familiak.

Foru lege honen eraginetarako, honakoa hartuko da desgaitasuna duten pertsonak dauzkan familiatzat: familia bat non bizi baita ondorengo ahaide bat edo zuzeneko lerroz nahiz 2. gradura arteko odol-ahaidetasunez ahaidea den pertsona bat, % 33ko edo goragoko desgaitasun-gradua kreditatzen duena eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko legedian desgaitasunarengatiko gutxienekoa aplikatzeko finkatzen den kopurutik gorako urteko errentarik ez duena.

Halaber, familia bat desgaitasuna duten pertsonak dauzkan familiatzat joko da gurasoetako batek 33ko edo goragoko desgaitasun-gradua aitortua duenean.

**47. artikulua.** Beren kargura mendetasuna duten pertsonak dauzkaten familiak.

Beren kargura mendetasuna duten pertsonak dauzkaten familiatzat hartuko dira mendetasun-egoera aitortua duten pertsonak bizi direneko familiak, araudi indardunean ezarritakoari jarraituz.

**48. artikulua.** Ahulezia-egoeran dauden familiak.

Ahulezia-egoeran dauden familiatzat hartuko dira gizarte-bazterketako egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden familiak, beren baitan familia-indarkeria pairatzen dutenak, terrorismoaren biktimak direnak, eta dauzkaten inguruabar sozio-ekonomiko bereziak direla-eta halakotzat sailkatzen direnak.

## V. KAPITULUA

### Amatasuna babestea

**49. artikulua.** Printzipioak.

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, amatasunaren babesa sustatuko du, honako printzipio hauen pean:

a) Haurdun dagoen emakumeari laguntza eta babesa ematea, eskubide eta askatasun konstituzional eta zibilak sustatzearen bitartez.

b) Amatasun eta aitatasun arduratsuen sustapena.

c) Amatasuna babesteko politika sozialen zeharkako izaera sendotzea.

d) Arlo honetan, prebentzio- eta heziketa-politika bat sustatzea.

e) Amatasun/aitatasunetik heldutako eskubideak gauzatzearekin lotutako berdintasun baldintzen gauzatze efektiboaren bermea.

**50. artikulua.** Haurdunaldirako eta amatasunerako eskubidea.

1. Administrazio publikoek emakume haurdunei laguntzeko jarduketak egingen dituzte Nafarroan.

2. Emakumeek libreki hautatutako amatasunerako eskubidea dute; horretarako, behar diren informazioa eta laguntza –medikoa, ekonomikoa, psikologikoa, gizarteratzekoa nahiz familian integratzekoa, legala edo administratiboa– emanen zaizkie; hain zuzen, haurdunaldiaren edo amatasunaren ondorioz behar dezaketen laguntza.

3. Haurdun dauden emakumeek eskubidea dute informazioa eta aholkua jasotzeko haurdunalditik nahiz amatasunetik heldutako edozein beharriari aurre egiteko eskura daitezkeen zerbitzu guztiei buruz.

**51. artikulua.** Laguntza eta aholkularitza.

1. Haurdun dagoen emakumearen informaziorako eta aholkurako eskubidea bermatzeko, Nafarroako Gobernuak sustatuko du emakume haurdunei laguntza edo aholkua emateko zentro edo guneak egon daitezela; haietan, informazio banaketa, behar adinakoa, ulergarria eta eskuragarria emanen da jaso daitezkeen laguntza eta babes guztiei buruz, juridikoak zein ekonomikoak, publikoak zen pribatuak, norberaren inguruabar pertsonal, sozio-ekonomiko eta kulturalen arabera.

2. Foru erkidegoko osasun zentroetan eta gizarte zerbitzuetan, edozein dela ere haien titularitasuna, haurdun dauden emakumeei eta haien familiei lege honetan aurreikusitako oinarriko

informazioa emanen zaie. Halaber, informazioa emanen zaie haurdun dauden emakumeentzako laguntza- eta aholku-zentroi buruz eta haien eginkizunei buruz, bai eta haietan harremanetan jartzeko moduari buruz ere.

3. Osasunaren eta gizartearen arloko profesionalen jarduketa-jarraibideak jasoko dituen protokolo bat garatuko da, halako moduz non ekintza koordinatu bat garatuko baita, haurdun dauden emakumeentzako laguntzan tratamendu orokor eta integrala bideratuko duena.

4. Oinarrizko informazioa, ahal dela, bide telematikoen bitartez emanen da.

**52. artikulua.** Ahulezia-egoeran dauden emakume haurdunentzako laguntzari lehentasuna ematea.

Lege honetan familiei laguntza emateko aurreikusitako neurrien esparruan, lehentasuna emanen zaie adina, kultura, osasuna, egoera sozio-ekonomikoa edo hura justifikatzen duen beste edozein inguruabar pertsonal edo soziala direla-eta ahulezia-egoeran dauden emakume haurdunei, baldin eta neurri horiek haien egoerari egokitzen bazaizkie.

**53. artikulua.** Adingabeen babesa.

Arreta berezia eskainiko zaie haurdun dauden adingabeei. Berriazko laguntzarako eskubidea izanen dute; gutxienez ere, honako prestazioak jasoko dituzte:

1. Harreman eta balio afektibo-sexualetan prestakuntza eta aholkua ematea.

2. Guraso izate positiboa garatzeko prestakuntza.

3. Laguntza psikologikoa, erditzearen aurretik eta ondoren.

4. Ikastetxean arreta berezia ematea, curriculum-programa banakako inguruabarren arabera egokitze, bai haurdunaldian zehar, bai gero ere.

**54. artikulua.** Konfidentzialtasuna.

1. Haurdun dagoen emakumearekiko jarduketa eta prozeduretan, haren intimitatea eta datu pertsonalen konfidentzialtasuna babestuko dira.

2. Nafarroako administrazio publikoek elkarri utzi ahalko dizkiote haurdun dauden emakumeei beren beharrezkoak diren datu pertsonalak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko legedian jasotako xedapenak hertsiki betez.

**55. artikulua.** Lankidetzak.

1. Ahulezia-egoeran dauden emakume haurdunentzako babes- eta laguntza-neurrien efizientzia hobetzeko, Nafarroako Gobernuak lankidetzak-hitzarmenak sinatu ahalko ditu beste entitate publiko eta pribatu batzuekin.

2. Nafarroako Gobernuak sustatuko du haurdun dagoen emakumearentzako laguntza- eta aholku-zentroi laguntza ematea, bai eta ahulezia berezia duten emakume haurdunei harrera emateko lana garatzen duten entitateei ere.

**56. artikulua.** Edoskitzerako guneak.

Nafarroako Gobernuak sustatuko du sarbide libreko edoskitze-guneen sare bat egon dadila; gune horiek, xedatzen diren baldintzak betez, aukera emanen duten seme-alabak ingurune egoki batean elikatzeko eta garbitzeko.

**Xedapen indargabetzaile bakarria.**

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Lehen xedapen gehigarria.** Generoaren erreferentzia.

Ulertuko da lege honetan maskulinoan ageri diren aipamen orokorrak kasuko femeninoan ere eginda daudela.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Ondorengo ahaideekiko asimilazioa.

Lege honen eraginetarako, ondorengo ahaideekin asimilatuko dira tutoretza bidez, harrera bidez edo gurasoez besteko pertsona batek familia-autoritaterik jardutearen bidez lotutako pertsonak.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Aplikazioaren ebaluazioa.

Familiaren arloko organo eskudunak urtero balorazio-programak egiten ditu, legea onesten denetik aurrera, legearen aplikazioa eta ebaluazioa aztertze, bai eta hura esparru sektorialean egiazki ezartzeko ere.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Hobari fiskalak.

Etorkizuneko tributu- eta administrazio-neurriak buruzko legeek lege honetan jasotako neurri fiskalak zehaztu eta eguneratuko dituzte.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Aurrekontuko kontusailak.

Nafarroako Gobernuak behar diren kontusailak –egoki eta nahikoak– ezarriko ditu lege hau garatu eta betetzeko.

**Seigarren xedapen gehigarria.** Amatasuna laguntzeko sarea.

Nafarroako Gobernuak plan integral bat prestatuko du, amatasuna laguntzeko sare eraginkor bat egotea ahalbidetzeko ekintzak eta helburuak jasoko dituena.

**Azken xedapenetan lehena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Foru Komunitatearen errekurtsio eta eskumenei buruzkoa.**

### *PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, Foru Komunitatearen errekurtsio eta eskumenei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **JABELDURAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreaki.

Jabeldura, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenei eta errekurtsioaren arloko politika orokorrari buruzkoa; eta, zehazki, 2012ko maiatzaren 17an Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeak Estatuarekin lortutako akordioa dela eta Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaiaren aurka UPyD alderdi politikoak Auzitegi Gorenean jarritako kasazio-errekurtsioari eta hura betetzeari dagokionez Nafarroako Foru Komunitateak izanen duen jarrerari buruzkoa, ikusita hitzarmen hori zaharkituta gelditu dela hitzarmena aldatzeko akordioaren kariaz.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren inbertsioak ezar eta egin ditzan, Reina Sofía Ospitalearen gabeziak konpontzeko, eta Erriberako osasun etxe eta anbulatorioetako analitika guztiak Reina Sofía Ospitaleko laborategian mantentzen ditzan.**

*SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren inbertsioak ezar eta egin ditzan, Reina Sofía Ospitalearen gabeziak konpontzeko, eta Erriberako osasun etxe eta anbulatorioetako analitika guztiak Reina Sofía Ospitaleko laborategian mantentzen ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Azken urteotan arazo ugari pilatzen ari dira Tuterako Reina Sofía Ospitalean, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak ezarritako murrizketen ondorioz: bi urte eta erdiko promes betegabeen ostean heldu da –azkenik, iragan astean– operazio-gelen eraikin berria ekipatzeko lizitazioa; gaixoak baldintza kaskarretan daude onkologiako eguneko ospitalean (bosgarren solairura eramanen zirela iragarri zen, eta hori ere atzeratu da); gaixoak Iruñeko zentro pribatuetara desbideratuak dira, ekografiak, mamografiak, erraki-kontsultak, ebakuntzak eta abar egiteko, itxarote-zerrendengatik edo behar diren aparatuek, matxurak direla-eta, erabilgarri ez egoteagatik. Hartara, kaltetuek eta haien senitartekoen arazo sozial eta ekonomiko larriak pairatzen dituzte.

Gauzak horrela, ospitalean eta Erriberan kezka handiarekin hartu dute albisteak: iragarri denez, Osasun Departamentuak martxoan Iruñera eramanen du ospitaleko laborategiaren parte handi bat; zehazki, egun egiten diren analitiken % 70, zeinak eskualdeko anbulatorio eta osasun etxe guztietatik heldutakoak baitira.

Halatan, 2011n hartu eta iragarritako erabaki bat gauzatuko da. Jadanik garai hartan Erriberako gizartearen parte handi bat erabakiaren aurka azaldu zen: 27.800 sinadura bildu ziren, Erriberako udalik gehienetan mozioak onetsi ziren, manifestazio jendetsu bat egin zen laborategia lekuz aldatzearen aurka, agerraldi bat egin zen Nafarroako Parlamentuan, eta abar. Erabakiak erantzun sozial handia izan zuen; aurrezpen eta kalitate handiagorearen aitzakian, ekipo teknikoak bere lana bukatu eta neurri hain drastiko hori justifikatzeko modua izan baino lehen halere hartu zen erabakia.

Hiru urte geroago, oraindik ere ez dugu ezagutzen Osasun Departamentuak adierazitako arrazoiak egiaztatzen dituen inolako azterlan edo txostenik, baina Eledunen Batzarrak urtarrilaren 7an aho batez hartutako erabakiari jarraikiz, horri buruz Kontuen Ganberak txosten bat eginen du azkenik, ospitale-sukaldeekin egin zuen bezala (-txosten hartan frogatu zen pribatizazioak kostuak areagotu zituela, aurrezpena ekarri ordez). Kasu honetan ere pentsatzekoa da merkeagoa izan daitekeela analitika baten kostua Tuteran, Iruñera joan-etorrian ibili behar bada baino. Horri gehitzen badizkiogu Tuterako Laborategia berritzen inbertitutako 500.000 euroak eta laborategiaren Iruñeko behin-behineko kokalekuaren kostua, ez du ematen zentralizazio horren arrazoi ekonomikoak argi daudenik. Departamentuak argudiatu du aurrezpen handia etorriko dela materialen eta erreaktiboen erosketak zentralizatzetik. Guk beti esan dugu neurri hori egokia dela, baina horrek ez du behartzen Nafarroako laborategi guztiak bateratzera. Izan ere, aurrezpen hori jada gertatu da: Reina Sofía Ospitaleko laborategi-gastua 1,9 milioi eurokoa izan zen 2011n, 1,5ekoa 2012an, eta milioi batekoa 2013an. Beraz, bi urte bakarrik behar izan dira jarduera berari eutsiz ia % 50 aurrezteko –ia



milioi bat euro—. Gure laborategia oso efizientea da, horrenbestez; zergatik aldatu?

Baina arazoa ez da soilik kostuena, ezpada kalitatearena ere. Analitiken % 70 Iruñera eramateak atzerapena eraginen du nahitaez kasu askotan (gertatzen diren akatsez eta errepikapenez gain), eta horrek ondorio negatiboak izanen ditu, zalan-tzarik gabe, ondorengo jardun klinikoari begira. Horri guztiari gehitu behar zaio Tuterako Ospitaleko Laborategiak aldian behin jasotzen duen kalitate-bermea, ISO ziurtagiriaren bidez emana. Zerbitzuaren kalitatea egiaztatuta badago, gertu-gertukoa bada profesionalentzat, eta Erriberako biztanleak zerbitzuarekin oso pozik bagaude, non dago kalitatearen hobekuntza?

Hortaz, ez dago argi laborategia lekuz aldatzearekin kostuetan aurreztuko denik edo kalitatea hobetuko denik, baina bai langileak kaleratuko direla (edo ez zaiela kontratua berrituko), non eta Nafarroa osoan langabezia-tasarik altuena izateko zoritxarra duen eskualde batean. Hartara, murriztu eginen dira, gainera, enplegu kualifikatua eta dotazio teknologikoa, zeinaren urritasuna, Erriberan, gure azpiegitura-ahulezietariko bat baita, arlo horri buruz egin diren azterlanek agerian utzi dutenen moduan.

Laborategiari dagokionez iragarri den desegite funtzionala —eta, horrekin batera, lehen aipatutako ospitale-arazoak— bat egitera dator Erriberak azken urteotan zerbitzu publikoen arloan pairatu dituen murrizketekin: kontserbatorioa, Biziaren Autobusa, ikastetxeak, hiri garraioa, kultura, eta abar. Dударik gabe, horrek guztiak Nafarroaren erdialde-iparraldearen eta hegoaldearen artean gertatzen ari den lurralde-arrakala handitzen laguntzen du.

Paradoxikoa da: 2007an onetsitako Nafarroako Lurralde Estrategian adierazitako borondatea zen "Tutera aldean kokatzea bere egungo pisuari jarraikiz legezkiokkeenak baino maila handiagoko zerbitzuak, Tuteraren zentralitatea areagotzeko xedez, Ebro ibarrean erreferentzia-gune bihurtu ahal izan dadin". Administrazioa azken urteotan egiten ari denaren kontra-kontrakoa, hain zuzen ere.

Laborateg guztiak Iruñean zentralizatzeak berekin ekarriko luke lanpostu kualifikatuak eta osasun arloko teknologia galtzea, eta, hartara, areagotu eginen litzateke zerbitzu publikoen defizita Erriberan, bai eta Nafarroaren hegoaldeak egun pairatzen duen lurralde- eta gizarte-arrakala kez-kagarria ere.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du urgentziaz ezar eta egin ditzan beharrezkoak diren inbertsioak, Reína Sofía Ospitalaren gabeziak konpontzeko: bosgarren solairua onkologiako eguneko ospitalerako egokitzea, eta bertan ekografiak, mamografiak eta abar egin ahal izateko baliabide teknikoak eta giza baliabideak paratzea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Erriberako osasun etxe eta anbulatorioetako analitika guztien egitea mantentzeko Reína Sofía Ospitaleko laborategian, zeinak argi erakutsi baititu bere kalitatea eta efizientzia.

Iruñean, 2015eko otsailaren 10ean

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal eta José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politika-modernizazioko zenbait neurri babesten ditu.**

### *ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak politika-modernizazioko zenbait neurri babesten baititu.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, politika modernizatzeko zenbait neurri babesteko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Parlamentu-talde Popularrak legegintzaldi honetan zehar behin baino gehiagotan defendatu du parlamentari-kopurua gutxitu beharra dagoela, politika modernizatzeko eta sektore publikoa murrizteko beste zenbait neurriekin batera.

Herritarrek beren ordezkari politikoenganako gero eta atxikimendu gutxiago edukitzeak hausnarketa sakon bat eragin behar du, gizarteak eta politikak azken urteotan bizi duten balio-krisiari dagokionez. Hausnarketa horren harira, kargu publikook geure buruari galdetu beharko genioke zer politika-mota garatu nahi dugun, politika jar-

duera noblea izatearen helburua aintzat hartuta, beti izan den moduan etaizateari utzi gabe segitu beharko zuen moduan.

Beharrezkoa da zenbait eredurekin amaitzea –politika politikariak karguan mantentzeko bizimodu bat balitz bezala ulertzen dutenak–, eta herritarren bizitza hobetzeko eta gizarteak aurrera egiteko lana berreskuratzea ordezkari publikoen helburu nagusi gisa.

Testuinguru honetan nabarmendu beharra dago iragan astean Konstituzio Auzitegiak bere babesa eman ziola Gaztela Mantxako Gorteetan onetsitako parlamentari-kopuruaren murrizketari, hango legebiltzarrak hartutako erabakiari erabateko legezketasuna aitortzen zion epai baten bidez.

Konstituzio Auzitegiaren oraintsuko epai hori bat egitera dator jarduera politikoa dela-eta gizartean dagoen sentsibilizazio gero eta handiagoarekin eta herritar-eskakizun ugariarekin, eskatzen dutenak sistema demokratikoaren, parte-hartzearen eta herri-ordezkaritzaren zenbait osagai gaurkotzea eta, azken finean, politika modernizatzeko neurriak urteaz hartzeara.

Tenore ona da, hortaz, Parlamentuak bere jarrera finka dezan auzi horiei dagokienez.

Horregatik guztiagatik, Parlamentuak bere babesa ematen die, besteak beste, ondoko neurriei:

1. Parlamentari-kopurua murriztea.

2. Parlamentua desprofesionalizatzea, parlamentu-taldearen heren bat edo zatiki bat liberatzeko aukerarekin.

3. Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren agintaldia bi legegintzalditara mugatzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 9an

Eleduna: Ana Beltrán Villalba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Plana aldatzea eskatzen da, eraikitze-irizpideak malgutze aldera familia bakarreko etxebizitza bakartuetarako, ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Plana aldatzea eskatzen baita, eraikitze-irizpideak malgutze aldera familia bakarreko etxebizitza bakartuetarako, ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak eta Patxi Leuza García, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Plana aldatzea eskatzen da, eraikitze-irizpideak malgutze aldera familia bakarreko etxebizitza bakartuetarako, ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean.

Hirigintza-araubideak historian zehar izan duen aplikazioak lurzoru urbanizaezinaren argazki bat ezarri du, zeinaren gabeziak argi gelditzen baitira Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Planaren onespenean eta lurzoru urbanizaezinean etxebizitzak baimentzeari dagokionez bata bestearen ondotik emandako ezezkoetan. Arazo horiek 2008. urtearen hasieraz geroztik sortuak dira, Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak lurzoru urbanizaezinean familia bakarreko etxebizitzetarako eraikuntza-baimenak ukatzearekin.

Ukapen horiek, hasiera batean, argudio isolatuetan oinarritzen dira –segregazioei buruzko araudiaren aplikazio okerrari buruzkoak, paisaiainpaktua zuzentzeko neurriak ezari buruzkoak, populazio-guneak sortzeko arriskuari buruzkoak, edo etxebizitza bakartuak ez izateari buruzkoak–. Azkenik, urtebeteren buruan, argudio horiek guztiak argudio-sorta batean bateratu ziren, eta argudio-sorta hori eskabide guztiei ia sistematikoki aplikatzen zaie. Ezezko ebazpenarekin batera, ohar bat ageri ohi da, zeinean udalari adierazten baitzaio udal plana berrikusi beharra dagoela, lurzoru urbanizagarriaren mugak handitze aldera, edo, bestela, lurzoru urbanizaezinari buruzko arau bat onetsi.

2011ko uztailearen 21ean, behin betikoz onetsi zen Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Plana –LAP 2 plana–, zeinak bere eginkizunen artean ezartzen baitu "lurraldearen erabilera egokia, arrazoizkoa eta orekatua egin dezaten laguntzea, betiere bere esparruaren barrenean, lurraldea natur baliabide berriztaezina eta bere gainean eragina duten jardueren euskarria dela kontuan harturik". Planak "ingurune fisikoari dagozkion determinazioak ditu; izan ere, babes bereziko eremuak zehazten ditu, lurzoru urbanizaezina erabili eta babesteko irizpide eta arauak ematen ditu, eta arrisku naturalak izan ditzaketen tokiak seinaltatzen". Halaber, gorde beharreko lurzoru urbanizaezina sailkatzea eta arautzea udal planeamenduen eskumenekoa bada ere, LAP 2 planak erabileraren gaineko irizpide orokor batzuk ezartzen ditu halako lurzoruetarako, orientagarri gisa (PN 7 eranskina), bai eta babestu beharreko edo gorde beharreko lurzoru urbanizaezinean zenbait erabilera eta jarduera baimentzeko irizpideak ere (PN 8 eranskina).

LAP 2 plana ez da, berez, 35/2002 Foru Legea garatzeko erregelamendu bat, baina arau-esparru bat ezartzen du, bere lehen kapituluaren –Ingurune fisikoa eta bertako natur baliabideak antolatzeke estrategia– nolabait ere garatzen edo zehazten dituen plangintzarako lotesleak diren determinazioak (PL) nahiz determinazio orientagarriak (O), beraraiaz lurzoru urbanizaezinean jarduerak baimentzeko, zeinek, lurraldearen antolamenduko determinazioak direnez, beren aurka jotzen duten

toki planeamenduko aurreikuspenekiko nagusitasuna baitaukate.

Zehazki, lurzati urbanizaezinari dagokionez LAP 2 planeko 18. artikulutik 28. artikulura bitartekoen eta dagozkien eranskinetan jasotzen diren determinazioen aplikazioak behartzen du, koherentziaz, lurzoru mota horri buruzko toki planeamendua berrikustera, gaurkotzera, aldatzera edo garatzera.

Geroago, departamentuak zenbait lan-dokumentu prestatu ditu LAP 2 planeko 27. eta 28. artikulua argitu eta interpretatzeko aldera, bereziki zuzenduak kontzeptuak definitzera (populaziogunea, populaziogunea eratzeko arriskua, familia bakarreko etxebizitza, landa auzo tradizionala), bai eta irizpideak ere, (kokalekua, eskatzaileen baldintzak, prozedura, hirigintza zerbitzuak, esku-hartzearen azalera eta baldintzak), bete beharko direnak gorde beharreko lurzoru urbanizaezinean familia bakarreko etxebizitza berri bakartuak eta landa auzo tradizionalak lurzoru urbanizaezinean etxebizitza berriak egiteko. Azken horretarako orobat ezartzen da zer baldintza bete behar diren landa auzo tradizionalak har dadin, udal planeamenduan zer prozedura jarraitu behar den auzo horien mugak zehazteko eta horietan familia bakarreko etxebizitza berriak ezartzeko betekizunak.

LAP 2 planak –eta, zehazki, baimen-ukatzeak berrikitan eragindako arazoak– agerian utzi dute zein den arazoaren oinarria: antolamendu eza, eremuan lurzoru urbanizaezinaren balioen eta helburuen araberako lurralde-ikuspegitik. Helburu horiek LAP 2 planeko 29. artikuluan zehaztuta daude, eta guztiz bat datoz desagertzeko zorian dagoen natur eta kultur paisaia bati buruz dagoen kezkararekin, zeina baserriaren jarduera tradizionalak definitzen baitu batik bat. Hain zuzen ere, baserrian gertatutako belaunaldi-aldaketak nahiz aldaketa sozial eta ekonomikoak berak sortu duten arazoak, lurzoru urbanizaezineko etxebizitzetako buruzko araudiaren interpretazioan eta aplikazioan historian zehar gertatutako gehiegikeriak –lurzoru urbanizaezinean jarduerarekin loturarik gabeko txalet motako

etxebizitzak eraikitzea ekarri du horrek–, eta, azkenik, gehiegikeria horrek eragiten duen kontrako eragin protekzionistak behartzen dute arazoari aurre egitera, lurraldeari buruzko hausnarketa global berri bat eginez, hirigintza antolamendu klasikoaren kontzeptuetatik at, hiri lurzoruari, lurzoru urbanizagarriari eta haren hedapenari begira egon baitira tradizionalki.

Ez da ahantzi behar udal horien ikuspuntutik –eta, bereziki, horietan urte asko daramatzaten pertsonen memoriaren ikuspuntutik– beti ulertu dela foru legearen nahiz onetsi diren araudiaren helburua zela lurzoru urbanizaezinean etxebizitzak eraiki ahal izatea, herriko bizilagunek familiaren baserriko lurretan etxebizitza eraiki ahal izan zezaten, bai lurrez arduratzeko, bai etxebizitza berrirako hiri lurzoru edo urbanizagarria erosi behar izatea ekiditeko.

Hori dela-eta, LAP 2 planaren onespenerekin, ukitutako udal gehienek ulertu dute berrikusi beharra dagoela 27. eta 28. artikuluen testua eta horien gainean egiten den interpretazioa, halako moduan non lurzoru urbanizaezinean etxebizitza bat eraikitzearen salbuespenezko izaera hartuko baita gune horietako populazioa –eta, horrenbestez, hiri sistema –mantentzearen helbururako laguntza gisa, ekidinez biztanleek alde egitea etxebizitza edukitzea errazagoa den beste toki batzuetara.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda ditzan, ukitutako udalei entzun ondoren, maiatzaren 16ko 44/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Planeko 27. eta 28. artikulua, eraikitze-irizpideak malgutzeko aldera familia bakarreko etxebizitza bakartuetarako, ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 12an

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Tafallako Marqués de la Defensa ikastetxe publikoaren gabeziei buruz, eta gabezia horiek konpon ditzan.**

### *BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan Tafallako Marqués de la Defensa ikastetxe publikoaren gabeziei buruz, eta gabezia horiek konpon ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

2015eko urtarrilaren 9an, Hezkuntza Batzordea bisitan joan zen Tafallako "Marqués de la Real Defensa" ikastetxe publikora, zeinak, bere antzinasunarengatik eta egindako mantentze-lanak eta hobetze-lanak egin arren, instalazio-berritze handia behar baitu.

Zenbait obra egin beharra dago, segurtasun-arrazoiengatik:

1. Beharrian horietako bat da pista amerikarreko elementu narriatuak konpontzea, horien gaur egungo egoerak arriskutsu egiten dituelako.

2. Bainugelen kasuan, egin den jarduketa garrantzitsu bakarra izan da komun egokitu bat egitearena, legeak hala agintzen duelako, lehenengo solairuan. Gainontzeko bainugeletan, besterik gabe, kasuan kasuko gabeziei erantzun zaie (zisternak konpondu, jarioak konpondu...). Arazo horrek eragotzi egiten du higiene-ohitura osasungarriak hobetzeko proiektuak aurrera eramatea, irisgarritasuna zailagoa egiten dutelako.

3. Fatxada estaltzeko elementuak erretiratu eta kendu beharra dago, eta ikastetxe barruko hormak konpondu, egoerak okerrera egin baino lehen eta segurtasunari dagokionez ondorio larriak eragin baino lehen.

Hori guztia kontuan hartuta, eta ikusita ikastetxearen eskaria eta udalak eskainitako lankidetzaren behean sinatzen duten parlamentu-taldeek honako erabaki proposamen hau aurkeztu dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan hiru hilabeteko epean, Tafallako "Marqués de la Real Defensa" ikastetxe publikoaren gabeziei eta gabezia horiek segurtasunean nahiz irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapen egokian izan ditzaketen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du udalarekin lankidetzan ezar dezan zer jarduketa egin behar diren, eta zer epetan, instalazioen egoera duin bat bermatzeko, Tafallako "Marqués de la Real Defensa" ikastetxe publikoaren egungo gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanez.

Iruñean, 2015eko otsailaren 12an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Nekane Pérez Irazabal

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proiektu balioaniztun eta berritzaile bat taxutu dezan, Iruñeko San Frantzisko ikastetxe publikoko patioa estaltzeko.**

### *BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita proiektu balioaniztun eta berritzaile bat taxutu dezan, Iruñeko San Frantzisko ikastetxe publikoko patioa estaltzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

2014ko abenduaren 18an, Iruñeko San Frantzisko ikastetxe publikoko eskola kontseiluaren ordezkariak informazioa eman zuten, Hezkuntza Batzordean, ikastetxearen egoerari buruz. Ikastetxearen eraikina hiriko alde zaharrean dago, eta 1905ean eraiki zen. Ereku estalirik ez daukan ikastetxe bakarra da Iruñean, eta horrek bi arazo handi eragiten ditu: alde batetik, gorputz hezkuntzako eskolak ematen ahal izateko eremurik ez dago –asteko 34 saiotik 6, baldintza ezin okerragoetan egin behar dira gaur egun, psikomotrizitate-gelan edo patioan–; eta beste alde batetik, eremu estalirik ez edukitze hori arazo bat da euria egiten duen egunetan atsedendialdiak egiteko, jantoki orduetan, eskolaz kanpoko jarduerak egitean

eta eskola-ospakizunetan. Ereku egokirik ez dagoenez, ikasleak beheko solairuko korridorean egoten dira; horrenbestez, bai foru araubidean bai estatukoan ezarritako gehieneko zarata-mailak gainditzen dira.

Eskaera hau ez da berria. Patioa estaltzearen premia ikasturte bukaerako oroitidazki guztietan eta Eskola Kontseiluak 2003-2004 ikasturtetik egindako bilera guztietan agertzen da. Udala eta Hezkuntza Departamentua jakinaren gainean daude, baina urte hauetan guztietan batak bestearen bizkar utzi dute arazo hauei erantzun bate ematearen ardura, ikastetxeak bi erakunde horiekin egindako bilerek erakusten duten bezala. Jarrera hori eragozpen bat da konponbide batera heltzeko, eta kaltegarria da ikastetxeko ikasleentzat eta irakaslan garatzeari begira.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeen honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean eta Iruñeko San Frantzisko Xabierkoa ikastetxeko hezkuntza-erkidegoarekin eta udalarekin lankidetzan taxutu dezan proiektu balioaniztun eta berritzaile bat patioa estaltzeko, jolaserako eta gorputz hezkuntzako eskolak emateko eremu erabilgarri handiago bat sortzea ahalbidetuko duena.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behin-behineko konponbide bat eman dezan, karpa bat edo gisako zerbitzu paratuz, patio-erdia estaltzeko.

**3.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzako protokoloak ezar ditzan, ikastetxearen inguruetan jolas-orduetarako eremuak egokitzeko –Ezpeleta Jauregian eta San Frantzisko Plazan–.

Iruñean, 2015eko otsailaren 12an

Foru parlamentariak: Itxaso Lete Martínez eta Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatzen zaio uholdeen aurrean prebentzio-politika bat abiaraz dezan, uztartuko dituen ingurumen-interesak eta Nafarroako zenbait udaletan urtero-urtero errepikatzen diren arazoaren errealitatea.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatzen baitzaio uholdeen aurrean prebentzio-politika bat abiaraz dezan, uztartuko dituen ingurumen-interesak eta Nafarroako zenbait udaletan urtero-urtero errepikatzen diren arazoaren errealitatea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Santos Cerdán León jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio urgente hau aurkeztu du, Landa Garapeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Berriro ere, eta jada zenbait urte dira, Nafarroako zenbait udalek, nekazarik eta herritarrek oro har, uholdeak bata bestearen atzetik pairatzen ari dira; halatan, arriskuan da kasu askotan beren familien biziraupena, uholdeek herri askotako laboreak eta zonak suntsitzen baitituzte.

Kaltetutako herrietako alkateek eta eledun sozialistek izandako bileraren ostean egiaztatu ahal izan da ez dagoela ez aurreikuspenik, ez protokolorik, uholdeek eragindako egoera larriak leuntzeko, eta ez dagoela konpromiso sinaturik, zeren hitzez hartutakoak, sarri, sistematikoki urratu baitira.

Eskumenak eta horien ondorioak bere gain hartu behar ditu galga jartzeko erantzukizuna daukanak.

Orobat egiaztatu zen departamentuan koordinaziorik ez dagoela, bileretatik eta balizko konponbideetatik kanpo utzi baitira zenbait udal, neurri txikiagoan bada ere kaltetuta zeudenak.

Beste probintzia batzuetan ez bezala, ez dago diruz lagundutako uholde-eremurik, ihesbide bat emanen diena ibaiei hazten direnean, eta ez dago prebentzio-politika ere, uztartzen dituen ibaien garbiketa eta drainatzea eta ingurumen-politikak eta -erreibindikazioak.

Horregatik guztiagatik, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatzen dio prebentzio-politika bat abiaraz dezan, uztartuko dituen ingurumen-interesak eta urtero-urtero eragiten dituzten uholdeek sortutako arazoaren errealitatea, zeinak ekidin baitaitezke drainatzeen eta gure ibaien garbiketa egokiaren bidez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio inplikazio aktiboago bat izan dezan gure ibaiei eta gure ibaien mantentze-lanei dagozkien erabakiak hartzean, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exigi diezaion uholde kasuetarako jarduketako protokolo zehatz bat, zeinean argituko baitira administrazio bakoitzaren eskumenak –tokiko administrazioarenak, autonomia erkidego-koarenak eta zentralarenak–, ez dadin berriz gerta ibaiak gainezka egiten dutenean gaur egun gertatzen den nahasmena bezalakorik, eta ex ante argi zedarriturik geldi daitezen administrazio bakoitzaren erantzukizunak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio uholde-eremuen mapa bat egin dezan, eta horietako bakoitzari dagozkion diru-laguntzak zehatz ditzen.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio nekazaritzako azpiegiturako kalteak ordaintzeko konpromiso argia har dezan, Espainiako Gobernuari eskatutako ohiz kanpoko laguntzetan sartzen ez direnak, ekidite aldera toki administrazioentzat kaltegarriak izatea, aurreko uholdeetan gertatu zen bezala.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio kreditu-erreserba bat egin dezan eta ondoren diru-laguntzen deialdi bat, behar adina diru edukitze aldera bermeeekin konpon daitezen herrietako lubetak, herri horiei tratu bertsua eman dakien eta jarduketa global bat egin dadin, udal batzuk besteen gainetik jarri gabe.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio akordio bat egin dezan Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, erantzun azkar bat emanen diena herrien galderei eta beharriaznei, Konfederazioak dituen eskumenekin bat.

Iruñean, 2015eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

---



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Laguntza humanitarioko eskariak direla-eta Nafarroako Gobernuak agintari kurduekin ezarritako hartu-emanen buruzkoa.**

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Laguntza humanitarioko eskariak direla-eta Nafarroako Gobernuak agintari kurduekin ezarritako hartu-emanen buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Sánchez de Muniáin jaunak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urriaren 13an onetsitako erabakiaren 3. puntuan, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen zion aldeko erantzuna eman ziezaien laguntza humanitarioa eskatuz agintari kurduek egindako deiei.

Nafarroako Gobernuak inolako hartu-emanik izan al du agintari kurduekin?

zona hartan laguntza humanitarioko eskariak egin izanaren ziurtasunik ba al du? Zer egingen du horri dagokionez?

Iruñean, 2015eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

## **Galdera, hezkuntzako langile funtzionarizatuak Estatuko klase pasiboen araubideari libreki atxiki ahal izate aldera Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei buruzkoa.**

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, hezkuntzako langile funtzionarizatuak Estatuko klase pasiboen araubideari libreki atxiki ahal izate aldera Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak ekintzarik egin al du betetze aldera Hezkuntza Batzordeak 2013ko ekainaren 25ean onetsitako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen beharrezkoak ziren zuzemenak egin zitzaizkion, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari atxikitako langile funtzionarizatuak beren borondatez Estatuko klase pasiboen araubideari atxiki ahal izateko?

Iruñean, 2015eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

## **Galdera, jakitekoa ea zer urrats egin diren Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betearazte aldera; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernua premiatu zuena akordio bat lor zezan Nafarroan kokatutako finantza-entitateekin, haien jabetzako etxebizitzak etxegabetzeek ukitutako pertsonen eta familien alokairu sozialeko araubidean emateko.**

*ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea zer urrats egin diren Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betearazte aldera; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernua premiatu zuena akordio bat lor zezan Nafarroan kokatutako finantza-entitateekin, haien jabetzako etxebizitzak

etxegabetzeek ukitutako pertsonen eta familien alokairu sozialeko araubidean emateko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko martxoaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen akordio bat lor zezan Nafarro-

an dauden finantza-entitateekin, beren jabetzako pisuak bideratze aldera etxegabetzeek kaltetutako pertsona eta familientzako gizarte-alokairura.

Akordio horri dagokionez, Parlamentuaren agindua betetze aldera egindako zuzemen eta jarduketara guzti-guztien zerrrenda jaso nahi dugu, datak zehaztuta.

Iruñean, 2015eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

---

## **Galdera, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aipatutako konpentsazioei buruzkoa.**

**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aipatutako konpentsazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarriari eta martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikulua ezartzen dituen konpentsazioak egiteko prozedurari dagokionez, eta uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. artikulua xedatutakoari jarraikiz, hauxe jakin nahi dut:

- Arestian aipatutako horien kariatara Nafarroako Gobernuak 2014an eta 2015eko orain artekoan egindako konpentsazioei buruzko datuak.

- Gaur egun egiteke dauden konpentsazioak, konpentsaziorako eskubidea zer egunetan aitortu zen zehaztuta.

- Arestiko bi gai horien xehakapena eskatzen dut, salbuespenen eta hobarien xedearen arabera egina.

Iruñean, 2015eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, adingabeei laguntzeko zuzendaritza batzordeari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera adingabeei laguntzeko zuzendaritza batzordeari

buruzkoa zen, eta 2015eko urtarrilaren 30eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2015. urterako langileen plantilla organikoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.1 artikulua xedatzen du Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoari buruz eginiko proposamena eta Kontu-hartzailera eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak eginiko

txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuen 14.1 artikuluekin bat, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2015. urterako langileen honako plantilla organikoa onestea.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izendapen librea	Esklusi bitatea	Batera- ezintasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku bereziko osagarria
<b>Idazkaritza Nagusia</b>									
Legelari nagusia (1)	1	A	X	55		80		35	
<b>Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren Idazkaritza</b>									
Administrari burua (2)	---	C	X			56,18	12		
Administrariak	2	C				46,18	12		
<b>Zerbitzu Juridikoak</b>									
Legelariak	5	A		55		63			
<b>Zerbitzu Orokorrak</b>									
Zerbitzu Orokorretako burua (3)	---	B	X	55		42,60			
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	32,60			
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A			35	33			
Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	2	B			35	32,60			
Administrariak (4)	5	C				46,18	12		
Mantenimenduko ofizial teknikaria	1	C				40	12		10
Gelazain nagusia (5)	---	D				46,50	15		
Gelazainak (6)	11	D				36,50	15		
<b>PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA</b>									
Prentsako burua	1	A		55		63			
Komunikazio teknikaria	1	A			35	33			
Itzultzaileak	5	A		55		17			
Protokoloko teknikaria (7)	1	B			35	32,60			
Administrariak (4)	2	C				46,18	12		
Transkriptoreak (4)	6	C				46,18	12		
<b>ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>									
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		43			
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	32,60			
Administrariak (4)	2	C				46,18	12		
<b>KONTU-HARTZAILAZIA ETA EKONOMIA GAJETARAKO ZERBITZUA</b>									
Kontu-hartzailezako burua	1	B		55		42,60		15	
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	32,60			
Administrariak	2	C				46,18	12		
<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>									
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	1	B			35	32,60		20	
Administrariak	2	C				46,18	12		

(1) Parlamentuko Mahaiak izendaturikoa, Lehendakariak proposaturik, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien edo Nafarroako Gobeinuko aholkulari juridikoen artean. Plantilla organikoaren argitaratze-egunean, Parlamentuko legelarien kidegoko funtzionario batek betetzen du lanpostu hau.

(2) Izendapen librea, Parlamentuko administrarien kidegoko funtzionarioen artean.

(3) Izendapen librea, Parlamentuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikarien artean.

(4) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.

(5) Merezimenduen lehiaketa bidez izendatua, gelazainen kidegoko funtzionarioen artean.

(6) Mantentze-lanak egiteko abikitako lanpostua.

(7) B1 mailako ingeles-titulua duen lanpostua.

**b) Behin-behineko langileak**

Kop.	Lanpostua	Izendapen askea
1	Lehendakartzako Kabineteko burua	BAI
1	Lehendakariaren idazkaria	BAI
1	Mahaiko kideen idazkaria	BAI
12	Parlamentu-taldean laguntzaileak: 4 UPN; 2 SN; 2 Aralar-NaBai; 2 BILDU; 1 PPN eta 1 I-E	BAI

Nafarroako Parlamentuak laguntzaile bat ordaintzen dio parlamentu-talde bakoitzari parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

Kop.	Lanpostua	Izendapen askea
1	Arloko aholkulari arduraduna	C
1	Idazkari Nagusia – Aholkulari teknikoa	C
2	Aholkulari teknikoa	C
1	Arartekoaren idazkaritza	G

C: Nafarroako Arartekoaren Bulegoko behin-behineko kargua - izendapen librea

G: Kabineteko behin-behinekoa - izendapen librea

